

**BILBOKO UDALEKO GIZARTE EKINTZA SAILAREN ETA GAZTELEKU GARAPEN KOMUNITARIOKO ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, HIRIKOI ETA KALI-KALO GIZARTE-DESABANTAILA PROGRAMAK GARATZEKO BILBOKO VII. BARRUTIAN, ERREKALDEN (2019).**

**CONVENIO ENTRE EL ÁREA DE ACCIÓN SOCIAL DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO Y LA ASOCIACIÓN DE DESARROLLO COMUNITARIO GAZTELEKU PARA EL DESARROLLO DE LOS PROGRAMAS DE DESVENTAJA SOCIAL HIRIKOI Y KALI-KALO EN EL DISTRITO VII DE BILBAO- ERREKALDE (2019).**

#### BILDU DIRA

#### REUNIDOS

Alde batetik, Iñigo POMBO ORTIZ DE ARTIÑANO jauna, Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Saileko zinegotzi ordezkaria.

De una parte D. Iñigo POMBO ORTIZ DE ARTIÑANO, Concejal-delegado del Área de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao.

Beste alde batetik, Raquel FREIRE SÁNCHEZ andrea, 30661444-Y NAN zenbakiduna, GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkartearen izenean eta ordezkari-tzan (egoitza: Bilboko Altube Zeharkalea z/g, etxabea).

Y de otra, Dña. Raquel FREIRE SÁNCHEZ, con D.N.I. 30661444-Y, actuando en nombre y representación de la Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU, con domicilio en Travesía de Altube s/nº bajo, de Bilbao.

Berlaratutakoek gaitasun osoa aitortzen diote elkarri, duten izaerarekin eta ordezkari-tzarekin; eta, horretarako,

Los comparecientes, en la representación que ejercen se reconocen plena capacidad para obligarse con el carácter que intervienen y, a tal fin,

#### ADIERAZI DUTE

#### EXPONEN

##### Lehenengoa

##### Primero

Bilboko Udaleko Udalbatzak onartutako Gizarte Ekintza Saileko aurrekontuan, diru-laguntza izenduna aurreikusita dago GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkartearen alde, 250.000,00 euroan (2019/21000/23120/4819900 partida), **HIRIKOI ETA KALI-KALO GIZARTE-DESABANTAILAKO PROGRAMAK GARATZEKO BILBOKO VII. BARRUTIAN, ERREKALDEN (2019).**

Que en el presupuesto del Área de Acción Social aprobado por el Excmo. Ayuntamiento Pleno, está prevista una subvención nominativa a favor de la Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU por un importe de 250.000,00 € (partida 2019/21000/23120/4819900) para **EL DESARROLLO DE LOS PROGRAMAS DE DESVENTAJA SOCIAL HIRIKOI Y KALI-KALO EN EL DISTRITO VII DE BILBAO- ERREKALDE (2019).**

GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkar-teak 2019eko ekitaldian garatu beharreko programaren proiektua aurkeztu du (1. ERANSKINA), betearazpen-aurrekontuekin batera (2. ERANSKINA). Eranskin biak gehitu dira, alde biek sinatuta. Eranskin biak, hitzarmen hau bezala, sinatu egin beharko dira.

Que la Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU ha presentado el Proyecto del programa a desarrollar en el ejercicio 2019 (ANEXO 1), junto con su presupuesto de ejecución (ANEXO 2). Se adjuntan como anexos firmados por ambas partes. Ambos anexos deberán firmarse, al igual que el presente convenio.

Aipatutako diru-laguntzaren kontzesio zuzena arautzen duen Hitzarmen hau eta aipatutako Proiektuan parte hartzen duten aldeen konpromisoak azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Legearen babesean prestatu dira, betiere, aipatutako Legeko 22 eta 28. artikulua betez.

Al amparo de la Ley de Subvenciones 38/2003 de 17 de Noviembre se ha confeccionado el presente Convenio regulador de la concesión directa de dicha subvención así como los compromisos de las partes que intervienen para el desarrollo del Proyecto mencionado, todo ello en cumplimiento de los artículos 22 y 28 de la citada Ley.

Gizarte Ekintza Sailak, esparru horretako udal esku-menak arautzen dituen legezko markoaren barruan (Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren pres-tazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko**

El Área de Acción Social, dentro del marco legal que regula las atribuciones municipales en dicho ámbito, Ley 12/2008 de 5 de diciembre de Servicios Sociales, **Decreto nº 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de pres-taciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales**, Acuerdo sobre reparto de programas sociales

**185/2015 Dekretua**, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Udalak 2002ko urriaren 1ean sinatutako programa sozialen banaketari buruzko Akordioa eta dagozkion legezko xedapenak), modu positiboan baloratu du GAZTELEKU Gizarte Garapen Komunitarioko Elkarateak Bilboko VII. Barrutian (Errekalden) kudeatutako HIRIKOI eta KALI-KALO gizarte-desabantailako programaren garapenaren bitartez bilatzen den interes publiko eta soziala.

### **Bigarrena**

Gizarte Ekintza Sailak, bere eskumenen esparruan, gizarte-desabantaila egoeran dauden adinez txikikoekin eta gazteekin esku hartzera bideratutako programak eta zerbitzuak garatzen ditu, eta prebentzioa, babesgabetasunaren eta gizarte bazterkeriaren arrisku-faktoreen antzemate goiztiarraren bitartez, udal esku-hartze politikaren funtsezko helburua da.

Aurreko guztiaren ondorioz, eta haurrei eta gazteei eragiten dizkieten arazoei erantzun zehatzak eta auke-rak emateko asmoz, betiere, Bilboko VII. barrutian bizi direnek sektore horietan dituzten beharrei erantzunez, Gizarte Ekintza Sailak Bilboko auzo hauetan programa espezifikoak abiarazteko interesa eta beharra balioetsi du.

GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkaratea Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean ari den erakundea da. Irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta bere helburua da adinez txikikoei eta gazteei zuzenduriko hezkuntza, gizarte eta konpentsazio zerbitzu eta programak sustatu eta garatzea, batez ere, gizarte eta ekonomia-bazterkeria jasaten dutenei.

GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkarateak 25 urte baino gehiagoko esperientzia dauka, eta Haurtzaro, Gazteria eta Familiarekin gizarte eta hezkuntza esku-hartzean aditua da. Orain dela 20 urte baino gehiago elkarlanean ari da Gizarte Ekintza Sailarekin, Bilboko VII. barrutiko auzoetan bizi diren adinez txikikoei eta gazteei zuzenduriko gizarte eta hezkuntza programak eta programa komunitarioak garatzen.

GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkarateak profesional gaituak eta adituak bermatzen ditu kolektibo hauen gizarte eta hezkuntza esku-hartzerako.

### **Hirugarrena**

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, 7.i), 73 eta 74. artikuluetan eta bat datozen gainerakoetan, jasotzen du Herri Administrazioek gai-

suscrito por la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Bilbao de fecha 1 de Octubre de 2002 y disposiciones legales concordantes, ha valorado positivamente el interés público y social que se persigue mediante el desarrollo de los programas de desventaja social HIRIKOI y KALI-KALO en el Distrito VII de Bilbao- Errekalde gestionado por la Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU.

### **Segundo**

El Área de Acción Social, en el ámbito de sus competencias, viene desarrollando programas y servicios destinados a la intervención con Personas Menores y Jóvenes en desventaja social, siendo la prevención a través de la detección precoz de factores de riesgo de desprotección y de exclusión social un objetivo fundamental de la política municipal de intervención.

En consecuencia con lo anterior y con objeto de dar respuestas específicas y alternativas a las problemáticas que afectan a la población infantil y juvenil y atendiendo a las necesidades detectadas en estos sectores de la población residente en el Distrito VII de Bilbao, el Área de Acción Social ha valorado el interés municipal y la necesidad de poner en marcha programas específicos en estos barrios de Bilbao.

La Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU, entidad colaboradora de Servicios Sociales, es una Sociedad sin ánimo de lucro cuyo objetivo es la promoción y el desarrollo de servicios y programas de carácter educativo, social y compensatorio destinados a Personas Menores y Jóvenes, especialmente expuestas a la exclusión social y económica.

La Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU con más de 25 años de experiencia en estas materias, está especializada en la intervención socioeducativa con Infancia, Juventud y Familia, y desde hace más de 20 años colabora con el Área de Acción Social en el desarrollo de programas socioeducativos y comunitarios destinados a Personas Menores y Jóvenes residentes en los barrios del Distrito VII de Bilbao.

La Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU garantiza la dotación de profesionales cualificados y expertos en la intervención socio-educativa con estos colectivos.

### **Tercero**

La Ley de Servicios Sociales 12/2008 de 5 de diciembre, contempla en sus Art. 7.i), 73, 74 y concordantes, la facultad de las Administraciones Públicas para recurrir y fomentar la participación de la iniciativa privada sin ánimo

tasuna dutela irabazi asmorik gabeko ekimen pribatu-aren partaidetzaz baliatzeko eta sustatzeko, gizarte zerbitzuen esparruko prestazioak garatu ahal izateko.

2004an, GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkar-teak, Bilboko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzako Etxe-bizitza eta Gizarte Gaietarako Sailarekin batera, Haur eta Gazteentzako Plana abiarazi zuen Bilboko VII. barrutian. Plan horrek kolektibo horien zailtasunei eta arazoei aurre egiteko beharrari erantzuten zion, ikus-pegi global eta integral batetik: pertsonala, hezkun-tzazkoa, soziala eta kulturala.

Bilboko VII. barrutian egindako Haur eta Gazteentzako Planaren barruan, Gizarte-desabantailako programa espezifiko bi dagude.

- **HIRIKOI:** gizarte-desabantailan dauden gazteei zuzenduriko gizarte eta hezkuntza sustapeneko programa espezializatua. Programak auzo hauetan bizi diren 18 eta 35 urte bitarteko gazteak ditu ardatz, eta berariazko eragina du zailtasun handiagoko egoeretan daudenengan
- **KALI-KALO:** barrutiko Ijito komunitateari zuzenduriko Garapen Komunitarioko Programa da, eta adinez txikikoei eta emakumezkoei zuzenduriko jarduerak lehenesten ditu.

Programa hauen helburua da ekintzak garatzea, gizarte-desabantailako egoerak gainditu eta kolektibo hauek gizarteratzeko.

Bilboko Udalak Plan hau garatzen lagundu du, GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkartearekin sinatutako hainbat hitzarmenen bidez, HIRIKOI eta KALI-KALO Gizarte-desabantailako programak garatze aldera.

Esperientzia honen balorazio positiboa, Bilboko VII. barrutiko biztanleria sektore honetan antzemandako arazoei erantzun espezifiko emateko beharra, GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkartearen lankidetzeta eta esperientzia, eta hitzarmen honen xede diren programen bitartez proposatutako esku-hartzearen garapenaren berezitasuna aintzat hartuta, Gizarte Ekin-tza Sailak, bere eskumenen esparruan, egokitzen ditu HIRIKOI eta KALI-KALO Gizarte-desabantailako Programekin jarraitzea, Bilboko VII. barrutiko auzoetan bizi diren eta babesgabetasun eta gizarte-bazterkeria arrisku-egoeran dauden adinez txikikoei eta gazteei zuzenduriko gizarte eta hezkuntza nahiz komunitate programak bideratzeko.

Ondorioz, parte hartu duten aldeek

de lucro, para el desarrollo de prestaciones en el campo de los servicios sociales.

En el año 2004 la Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU, en colaboración con el Ayuntamiento de Bilbao y el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, puso en marcha un Plan Global Infante-juvenil en el Distrito VII de Bilbao, Plan que respondía a la necesidad de afrontar las dificultades y problemáticas de estos colectivos desde una perspectiva global e integral: personal, educativa, social y cultural.

Dentro del Plan Global Infante-juvenil en el Distrito VII de Bilbao, se inscriben dos programas específicos denominados de Desventaja Social:

- **HIRIKOI:** Programa de promoción socio-comunitaria especializado en jóvenes en situación de Desventaja Social destinado a la población juvenil entre 18 y 35 años residente en estos barrios, incidiendo de forma específica en aquellas que se encuentran en situaciones de mayor dificultad, y
- **KALI-KALO:** Programa de Desarrollo Comunitario destinado a la población del distrito perteneciente a la comunidad gitana, priorizando las acciones dirigidas a menores y mujeres.

La finalidad de estos programas es el desarrollo de acciones destinadas a la superación de situaciones de desventaja social y la inclusión social de estos colectivos.

El Ayuntamiento de Bilbao ha venido colaborando con el desarrollo de este Plan a través de convenios sucesivos suscritos con la Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU para el desarrollo de los Programas de Desventaja Social HIRIKOI y KALI-KALO.

Teniendo en cuenta la valoración positiva de esta experiencia, la necesidad de dar una respuesta específica a las problemáticas detectadas en este sector de la población del Distrito VII de Bilbao, la garantía de colaboración y experiencia que ofrece la Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU y la singularidad de la intervención que se propone desarrollar a través de los Programas objeto del presente convenio, el Área de Acción Social, en el marco de sus competencias, ha estimado conveniente dar continuidad a los Programas de Desventaja Social HIRIKOI y KALI KALO para el abordaje socioeducativo y comunitario de Personas Menores y Jóvenes en situación de riesgo de desprotección y exclusión social residentes en los barrios del Distrito VII de Bilbao, en colaboración con los SSM.

En consecuencia, las partes que intervienen

## ADOSTU DUTE

### HELBURUA

Hitzarmen honen helburua da GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkartearen diru-laguntzaren emakida arautzea, Bilboko VII. barrutian Haur eta Gazte Planari atxikitako HIRIKOI ETA KALI-KALO Gizarte-desabantailako Programen garapena finantzatzeko udal Gizarte Zerbitzuekin batera, auzo hauetan bizi diren eta babesgabetasun eta gizarte-bazterkeria arrisku-egoeran dauden Adinez Txikikoei eta Gazteei zuzenduriko gizarte eta hezkuntza nahiz komunitate programak bideratzeko, hurrengo klausulen arabera:

### KLAUSULAK

#### LEHENENGOA.- JARDUN PRINTZIOAK

1. Gizarte eta hezkuntza esku-hartzea eta komunitate esku-hartzea Adinez txikikoei eta Gazteei eragiten dieten desberdintasun egoeren aurrean konpentsazio-erantzun gisa aintzat hartzea, eskubideak eta betebeharrak gauzatzeko berdintasun-printzipioen arabera.
2. Haur eta Gazteei euren testuinguru naturalean eragiten dizkieten babesgabetasunaren eta gizarte bazterkeriaren arrisku-faktoreen antzemate goiztiarra ahalbidetzeko neurri alternatiboak sustatzea, gizarte-desabantailako egoerak gainditu eta kolektibo hauek gizarteratzeko neurriak garatuz.
3. Perspektiba global batetik jarduerak garatzea, norbanakoaren alderdi guztietako bakoitza artatuz. garapen pertsonala, harremanetakoa, familiarra eta prestakuntzazkoa.
4. Prozeduretan malgutasuna ezartzea eta pertsona bakoitzaren bilakaera prozesura egokitzea, banakako arreta pertsonalizatua, autonomia eta partaidetza printzipioen arabera.
5. Udaleko Gizarte Zerbitzuetan aurreikusitako jarduerak koordinatzea eta komunitateko gizarte-eragileekin nahiz udaleko gizarte zerbitzuekin lan egitea, euren esku-hartzea sustatuz kolektibo horri eragiten dieten arazoak konpondu eta bizitza kalitatea hobetzeko.

## ACUERDAN

### OBJETO

El objeto del presente convenio es regular la concesión de una subvención a la Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU para financiar el desarrollo, en colaboración con los Servicios Sociales municipales, de los Programas de Desventaja Social HIRIKOI y KALI KALO, adscritos al Plan Infanto-juvenil en el Distrito VII de Bilbao, para el abordaje socioeducativo y comunitario de Personas Menores y Jóvenes en situación de riesgo de desprotección y exclusión social residentes en estos barrios de Bilbao, y de acuerdo con las siguientes

### CLÁUSULAS

#### PRIMERA.- PRINCIPIOS DE ACTUACIÓN

1. Incorporar la intervención socioeducativa y comunitaria como respuesta compensatoria ante situaciones de partida desigual que afectan a las Personas Menores y a los Jóvenes, bajo el principio de igualdad para ejercer derechos y deberes.
2. Promover medidas alternativas que contribuyan a la detección precoz de factores de riesgo de desprotección y de exclusión social que afectan a la Infancia y a la Juventud, en su contexto natural, a través del desarrollo de acciones destinadas a la superación de situaciones de desventaja social y la inclusión social de estos colectivos.
3. Desarrollar actuaciones desde una perspectiva de globalidad, atendiendo a todas y cada una de las facetas del individuo: su desarrollo personal, relacional, familiar y formativo.
4. Incorporar flexibilidad en los procedimientos y su adecuación al proceso evolutivo de cada persona, en base a los principios de atención individual personalizada, autonomía y participación.
5. Coordinar las actuaciones previstas con los Servicios Sociales Municipales y trabajar en colaboración con los agentes sociales de la comunidad, promoviendo su implicación en la solución de las problemáticas que afectan a estos colectivos y en la mejora de su calidad de vida.

## **BIGARRENA.- HELBURUAK**

### **HELBURU OROKORRAK**

1. Hitzarmen honen xede diren haur eta gazteen beharrei erantzun gaitua eskaintzea, Haur eta Gazteekin modu berezian esku hartuz, bai eta sozializazio prozesuan eragiten duten agenteekin ere, euren bizitza kalitatea hobetzeko eta gizarte desabantailako egoerak gainditu eta euren gizarteratzea ahalbidetzeko.
2. Bilboko VII. barrutiko Haur eta Gazteen Plan Globalaren barruan Gizarte-desabantailako esparrutik gauzatzen den esku-hartzeari kohesioa eta globaltasuna ematea.
3. Bilboko VII. barrutian zenbait prozesuri laguntza eskaintzea, gizarte-desabantailan dauden Adinez txikiko eta Gazteekiko esku-hartzeari buruz sensibilizatu eta horretaz jabetzeko, komunitatearen baliabide normalizatuetatik.
4. Bilboko VII. barrutiaren ehun soziala, sareko lana eta kohesio soziala sustatzea.

### **HELBURU ZEHATZAK**

1. Gazteen garapena sustatzea euren inguru hurbilenetan, euren gizarteratzea sustatuz eta bazterkeria-egoera desberdinak gaindituz.
2. Gazteak eurak beren prozesu pertsonalean edota kolektiboan sartzea, euren aldaketa propioaren eragile aktibo bihurtzeko.
3. Teknologia berriak sozializatzea eta arrail digitalen efektua txikiagotzen dituzten baliabideak ahalbidetzea.
4. Bizikidetasuna eta kulturantzatasuna ahalbidetzea, biztanleria ijitoaren partaidetza aktiboa sustatuz auzoetako bizitza sozialean.
5. Gizarte-desabantaila egoeran dauden Ijitoen komunitateko Adinez Txikikoen eta Gazteen garapen pertsonala erraztea, gizarteratze-prozesuak ahalbidetzen dituzten taldekako eta komunitateko gizarte eta hezkuntza jarduerak gauzatuz.

## **HIRUGARRENA.- HARTZAILEAK**

1. Bilboko VII. barrutian bizi diren 18 eta 35 urte bitarteko gazteak, arreta berezia jarriz zailtasun-egoera handiena dutenengan.

## **SEGUNDA.- OBJETIVOS**

### **OBJETIVOS GENERALES**

1. Dar una respuesta cualificada a las necesidades de la población infantil y juvenil destinataria del presente convenio, interviniendo de forma individual con las Personas Menores y Jóvenes y con cada uno de los agentes que influyen en su proceso de socialización, trabajando activamente para la mejora de su calidad de vida, la superación de sus situaciones de desventaja social y su inclusión social.
2. Dar cohesión y globalidad a la intervención que se realiza desde el Ámbito de Desventaja Social integrado en el Plan Global Infanto-Juvenil para el Distrito VII de Bilbao.
3. Apoyar procesos en el Distrito VII de Bilbao que sensibilicen y posibiliten la asunción de la intervención con Personas Menores y Jóvenes en desventaja social, desde los recursos normalizados de la comunidad.
4. Potenciar el tejido social del Distrito VII de Bilbao, el trabajo en red y la cohesión social.

### **OBJETIVOS ESPECÍFICOS**

1. Promover el pleno desarrollo de los jóvenes en su entorno más cercano, favoreciendo su inclusión social y la superación de las diferentes situaciones de exclusión.
2. Involucrar a los propios jóvenes en su proceso personal y/o colectivo, convirtiéndose en agente activo de su propio cambio.
3. Socializar las nuevas tecnologías y posibilitar recursos que minimicen el efecto de la brecha digital.
4. Favorecer la convivencia e interculturalidad fomentando una participación activa de la población gitana en la vida social de los diferentes barrios.
5. Facilitar el desarrollo personal de las Personas Menores y Jóvenes pertenecientes a la comunidad gitana y en situación de desventaja social realizando actividades socio-educativas grupales y comunitarias que posibiliten procesos de inclusión social.

## **TERCERA.- POBLACIÓN DESTINATARIA**

1. La población juvenil residente en el Distrito VII de Bilbao con edades comprendidas entre los 18 y 35 años,

2. Bilboko VII. barrutian bizi den ijito komunitateko biztanleria, adinez txikikoei eta emakumeei zuzenduriko ekintzak lehenetsiz.
3. Bilboko VII. barrutiaren errealitate soziala osatzen duten elkarte-ehuna eta baliabide komunitarioak.
4. Komunitatea sozializazio eragile aktibo eta zehatz gisa, Bilboko VII. barrutiko ikuspegi globalaren bitzita kalitatearen hobekuntzan.

incidiendo de forma específica en aquellas que se encuentran en situaciones de mayor dificultad.

2. Población perteneciente a la comunidad gitana y residente en el Distrito VII de Bilbao, priorizando las acciones dirigidas a Personas Menores y mujeres.
3. El tejido asociativo y recursos comunitarios que conforman la realidad social del Distrito VII de Bilbao.
4. La comunidad, entendida ésta como agente socializador activo y determinante en la mejora de la calidad de vida global del Distrito VII de Bilbao.

#### **LAUGARRENA.- GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK**

Bilboko VII. barrutian (Errekalde), gizarte-desabantailan dauden Adinez Txikikoen eta Gazteen esku-hartzera zuzenduriko HIRIKOI eta KALI-KALO programa eta zerbitzuen gaineko esku-hartzeari buruz Udalak egindako eskaera kudeatzeko, GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkarrekin programari eskainiko dio programa garatzeko beharrezkoa den Profesional Taldea. Profesionalak tituludunak izan beharko dira edo titulu homologaturen bat eduki, bai eta adinez txikikoekin eta familiekin gizarte eta hezkuntza esku-hartzea izan dutela ziurtatu ere, aurrerago zehazten den bezala.

Gazteleku programa egiteko esleitutako profesionalen zerrenda emango dio Gizarte Ekintza Sailari eta baikoitzari lanbidean jarduteko gaitasuna ematen dion titulazio akademikoa eta curriculumarekin ere jakinaraziko dizkio. Gainera, adingabeekin ohiko kontaktua duten programa honetako langileek Sexu Delitugileen Erregistro Nagusiko ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute (Haur eta Nerabeen Babes Sistema Aldatzeko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatu zuen Adingabeen Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 15eko Lege Organikoaren 13.5 artikulua).

Lan taldeko profesionalak hauek izango dira:

- **Hirikoi:** Lau Gizarte Hezitzaile lansaio osoan; horietako batek Koordinatzaile lanak egingo ditu.
- **Kali-Kalo:** Gizarte Hezitzaile bat lansaio osoan; Koordinatzaile lanak egingo ditu.
- **Haur eta Gazteen Plan Globalaren Gizarte-desabantailaren esparrua VII. Barrutian:** Gizarte Hezitzaile bat lansaio osoan, Koordinatzaile lanak egiten, eta lansaio erdi bat, erdi mailako administrari lanak egiteko.

Taldea osatzen duten gizarte hezitzaileak lansaio osoan arituko dira, asteleheneetik ostiralera, goizez eta arratsaldean, urte osoan, abuztuan izan ezik, hilabete

#### **CUARTA.- RECURSOS PERSONALES Y MATERIALES.**

Para la gestión de la demanda municipal de intervención relativa a programas y servicios destinados a la intervención con Personas Menores y Jóvenes en desventaja social en el distrito VII de Bilbao - Errekalde a través de los Programas HIRIKOI y KALI-KALO, la Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU dotará al programa del Equipo de Profesionales necesario para el adecuado desarrollo del mismo y estos deberán tener titulación u homologación y experiencia acreditada en intervención socio-educativa con menores y familias tal y como viene indicado más adelante.

Gazteleku proporcionará al Área de Acción Social la relación nominal de los profesionales asignados al programa así como su acreditación profesional (titulación académica y currículo). Además, el personal adscrito a este programa que tenga contacto habitual con personas menores deberá aportar un certificado negativo del Registro Central de Delincuentes Sexuales (artículo 13.5 L.O. 1/1996, de 15 de enero, de Protección Jurídica del Menor, modificada por Ley 26/2015, de 28 de julio, de Modificación del Sistema de Protección a la Infancia y a la Adolescencia).

El equipo de profesionales será el siguiente:

- **Hirikoi:** Cuatro Educadores/as Sociales a jornada completa, uno/a de ellos ejerciendo las funciones de Coordinador/a.
- **Kali-Kalo:** Un/a Educador/a Social a jornada completa ejerciendo las funciones de Coordinador/a.
- **Ámbito de Desventaja social del Plan Global Infante-juvenil en el Distrito VII:** Un/a Educador/a Social a jornada completa ejerciendo las funciones de Coordinador/a y media jornada de un/una técnico medio de administración.

Los/as educadores/as sociales del Equipo desarrollarán su actividad laboral a jornada completa de lunes a viernes

horretan zentroa itxita egongo baita oporraldia dela-eta.

Bere jarduerak gauzatzeko, Programaren profesional taldeak hurrengo lokaletan izango du erreferentziatzeko egoitza: Bizkargi kalea 14, atzeko aldea (Kali-Kalo); Altube zeharkalea z/g (Hirikoi eta Haur-Gazte Plana); Tolosa kalea 6 - Elejabarri Gaztegunea (Hirikoi eta Haur-Gazte Plana). Gizarte Ekintza Saileko Helduak Babesteko Negoziatuari jakinarazi beharko zaio irekitzeko, itxteko eta jardueren ordutegia.

Elkarteak langileen arloko aldaketak jakinarazi beharko dizkio Gizarte Ekintza Sailari. Ordezkoek programari atxikitako langileen hitzarmenean jasotako baldintzak guztiak bete beharko dituzte. Ordezkapenari buruzko jakinarazpena eta ordezkoen buruzko dokumentazioa (curriculum, titulazioa, etab.) dagokion negoziatura eta Gai Orokorretako Sailalatera bidali beharko dira..

Hitzarmen honen xede diren Gizarte-desabantailako Programetan aurreikusitako helburuak betetzeko, Bilboko Udaleko Gizarte Ekintza Sailak **250.000,00** euroko diru-laguntza emango du 2019eko ekitaldirako, 2. eranskinaren arabera xehatua ("*Aurrekontuaren fitxa*").

#### **BOSTGARRENA.- ORDAINTZEKO MODUA**

Gizarte Ekintza Sailak bi alditan egingo du Hitzarmen honen ordainketa: %80, onartua eta sinatua izan ostean; eta gainerako %20, berriz, 2019. urteko azken hiruhilekoan; horretarako, lehenengo seihilekoan egindako jardueren buruzko txostena aurkeztu behar da 2019eko irailaren 30a baino lehen.

Lehen ordainketa egin ahal izateko, pertsonalari dagokionez laugarren baldintzan xedatutakoa bete behar da. Pertsonalari dagokion dokumentazioa paperean eta formatu digitalean aurkeztu beharko da Ardura Orokorretako Sailalatean eta helbide elektronikoa honetan: [subarea.atenciones@bilbao.eus](mailto:subarea.atenciones@bilbao.eus).

Bigarren ordainketa egiteko, zerga-betebeharrak ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da, administrazio eskudunak egina; halaber, Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dituela eta langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria ere aurkeztu behar du, Diruzaintza Nagusiak egina.

y en horario de mañana y tarde, durante todo el año, exceptuando el mes de agosto en el que el centro permanecerá cerrado por periodo vacacional.

El Equipo de profesionales del Programa tendrá como sede de referencia para sus actividades los locales, sitios en: C/ Bizkargi nº 14 Trasera (Kali-Kalo); C/ Travesía de Altube s/n (Hirikoi y Plan Infante-Juvenil); Tolosa 6 – Gaztegunea Elejabarri (Hirikoi y Plan Infante-Juvenil). Debiendo comunicar al Negociado de Desprotección de Personas Adultas del Área de Acción Social el horario de apertura, de cierre y de las actividades de los mismos.

La asociación deberá comunicar al Área de Acción Social los cambios relativos al personal. Las personas sustitutas deberán cumplir todos los requisitos establecido en el convenio para el personal adscrito al programa y al cual sustituye. Dicha comunicación de sustitución y la documentación relativa al personal sustituto (curriculum, titulación, etc.) deberá dirigirse al Negociado correspondiente y a la Subárea de Atenciones Generales.

Para el cumplimiento de los objetivos previstos en los Programas de Desventaja Social objeto del presente Convenio, el Área de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao, concederá en el ejercicio 2019 una subvención por un total de **250.000,00** euros desglosado conforme al anexo 2 ("*ficha de presupuesto*").

#### **QUINTA.- FORMA DE PAGO**

El Área de Acción Social efectuará el abono del presente Convenio en dos veces: 80%, una vez haya resultado aprobado y firmado y el 20% restante, el último trimestre del año 2019, previa presentación antes del 30 de septiembre de 2019 de un informe sobre las actuaciones llevadas a cabo y de actividades durante el primer semestre.

Para hacer efectivo el primer pago será necesario el cumplimiento de lo dispuesto en la cláusula cuarta, en relación al personal. La documentación relativa al personal se presentará en papel y en formato digital en la Subárea de Atenciones Generales y en la siguiente dirección de correo electrónico: [subarea.atenciones@bilbao.eus](mailto:subarea.atenciones@bilbao.eus).

Para hacer efectivo el segundo pago será necesaria la certificación acreditativa de estar al corriente en el pago de las obligaciones fiscales expedida por la administración tributaria competente y certificación acreditativa de estar al corriente del pago de las obligaciones de la Seguridad Social, o de no tener la entidad trabajadoras a su cargo, expedida por la Tesorería General.

**SEIGARRENA.- GIZARTE-DESABANTAILAKO PROGRAMAREN KUDEAKETA**

Hitzarmen honen xede den Bilboko VII. barrutian Haur eta Gazteen Planari atxikitako **HIRIKOI eta KALI-KALO Gizarte-desabantailako Programen** garapenari begira, GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkartek hurrengo konpromisoak hartzen ditu:

1. Aurreikusitako jarduerak abiarazteko, Elkartearen profesional talde espezifiko eta azpiegitura jakin batzuk (lokalak, material informatikoa, hezkuntzako materiala, material ludikoa, altzariak, ibilgailuak...) ematea.
2. Berehala jakinaraztea taldeko profesionalen buruzko jazoerarik balego (aldizkako bajak edo behin betikoak, ordezkapenak, eta abar). Kontratu desagiteagatik bajak, gehienez ere, 15 egun naturaleko epean beteko dira, baja hartu deneko egunetik zenbatzen hasita.
3. Taldeko profesionalen lanaldiak eta laneko egutegia antolatuko ditu, eta atal honetan ezarritako jarraibideak beteko ditu, Gizarte Ekintza Sailarekin bat etorri. Hala ere, bere erantzukizun eskusiboa izango da indarrean dauden laneko eta gizarteko arau orokorrak aplikatzea, bai eta Bizkaiko sektorearen hitzarmen kolektiboa ere, hala badagokio. Gizarte Segurantzako gastuak eta Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak ematen dituzten langileetatik eratorritako beste gastu batzuk Enpresa/Elkarte sinatzailearen kontura joango dira soilik eta modu eskusiboan, eta, beraz, inoiz ezin izango dira hartu Bilboko Udaleko langiletzat, ez eta Bilboko Udalaren menpekotzat ere.
4. Hartzaileen eta hurrengo esku-hartze sailen araberako ezaugarri partikularretara egokitutako proiektuak eta ekintzak garatzea: Enplegua eta laneratzea, Irakaskuntza ez arautua, Osasuna eta bizitza kalitatea, Aisia eta familia; hori guztiari, hitzarmen honen I. ERANSKINEAN ezarritakoari jarraiki.
5. Komunitate proiektu eta programak diseinatu, kudeatu eta garatzean, elkartearen eskarmentua eta Gizarte-desabantailako programari atxikitako profesionalena eskaintzea; halaber, Bilboko VII. barrutiko auzoen ezaugarri, behar eta idiosinkrasia gainera ezagutzaren berri emango du, GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkartek elkarte ehunarekin eta Bilboko barruti honen balibideekin duen lotura eta partaidetza estuaren ondorioz.

**SEXTA.- GESTIÓN DE LOS PROGRAMAS DE DESVENTAJA SOCIAL**

Para el desarrollo de los **Programas de Desventaja Social HIRIKOI y KALI KALO**, adscritos al Plan Infante-juvenil en el Distrito VII de Bilbao objeto del presente Convenio, la Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU se compromete a:

1. Aportar, para la puesta en marcha de las actuaciones previstas, un equipo específico de profesionales y parte de las infraestructuras (locales, material informático, educativo, lúdico, mobiliario, vehículos...) con que cuenta actualmente la Asociación.
2. Comunicar de forma inmediata cualquier incidencia relativa a los profesionales del equipo (bajas temporales o definitivas, sustituciones, etc.). Las bajas por rescisión de contrato se cubrirán en el plazo máximo de 15 días naturales, contados a partir de la fecha de baja.
3. Organizar la jornada y calendario laboral de los profesionales del equipo, cumpliendo a estos efectos las indicaciones establecidas en este apartado de conformidad con el Área de Acción Social, siendo, sin embargo, de su exclusiva responsabilidad la aplicación de la normativa laboral y social vigentes, así como, en su caso, el convenio colectivo del sector en Bizkaia. Los gastos de Seguridad Social y otros que se deriven del personal que preste sus servicios objeto de este Convenio, serán de cuenta única y exclusivamente de la Asociación suscribiente, lo cual indica que nunca podrán considerarse como personal adscrito al Ayuntamiento de Bilbao, ni bajo su dependencia.
4. Desarrollar proyectos y acciones adaptadas a las características particulares de los destinatarios y a las siguientes Áreas de intervención: Empleo e inserción laboral, Enseñanza no reglada, Salud y Calidad de vida, Ocio y Cultura y Familia, conforme se establece en el ANEXO I del presente Convenio.
5. Aportar en el diseño, gestión y desarrollo de proyectos y programas comunitarios, la experiencia de la asociación y la de los/las profesionales adscritos a los Programas de Desventaja Social; así como su conocimiento del Distrito VII de Bilbao a cerca de las características, necesidades e idiosincrasia de sus barrios, fruto de la estrecha vinculación y participación de la Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU con el tejido asociativo y los recursos de este distrito de Bilbao.

6. Hiruhileko txostenak egitea, hezkuntzaren arloko proiektu pertsonalizatuen bidez atenditu diren pertsonen zerrenda eginez eta altak eta bajak jasoz; hori, udalaren gizarte zerbitzuekin batera egin beharreko jarduketak koordinatzeko. Hiru hilerik behin, programaren koordinatzaileak Helduak Babesteko Negoziatuta bidaliko du txosten hori, pertsonen zerrendarekin eta hezkuntzaren arloan hiruhileko horretan hasi edo amaitu diren proiektu pertsonalizatuekin.
7. Gizarte-desabantailako programak zabaltzeko publizitate eta komunikazio kanpaina garatzea, horiek eta beste zerbitzu batzuk behar bezala ezartzea bermatzeko, Programa hauen edozein zabalkundetan, Gizarte Ekintza Sailaren finantziazioa jaso dela jakinaraziz. Erakundeak jendarean jarri beharko du udal finantziazioa, Udalaren logotipoa jarriz sortzen dituen material inprimatuak (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroimenezko plaketan, bitarteko elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan, edo idatzizko komunikabideetan argitaratu ditzakeen iragarkietan. Horretarako, Gizarte Ekintza Sailak udal logotipo berria emango dio erakundeari.
8. Gizarte-desabantailako programen koordinazioa bermatzea, gaur egun GAZTELEKU Garapen Komunitarioko Elkartek Bilboko VII. barrutian garatzen dituen programa, jarduera eta zerbitzu ezberdinetan. Halaber, inguruko gizarte eta hezkuntza baliabide ezberdinekin koordinazio-harreman arinak eta egonkorak mantentzea.
9. Errekalde eta Iralako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin koordinazioa bermatzea, unitate horietako koordinatzaileen bitartez, bai eta Gizarte Ekintza Saileko Hautzaro, Gazteria eta Minusbaliotasun Negoziatuarekin ere.
10. Garatutako jardueraren eta hitzarmen honen xede diren Gizarte-desabantailako Programen ebaluazioaren urteko txosten kuantitatiboa egitea Helduak Babesteko Negoziatuan aurkeztea.
11. Gizarte Ekintza Sailari egokitzen jotzen dituen unean eta momentuan Gizarte-desabantailako Programen garapenari buruz beharrezkoak dituen informazioak ematea.
12. Gizarte Ekintza Sailari, egokitzen jotzen duen eran eta momentuan, Hitzarmen honen xede diren programak betearazteaz arduratzen diren langileen kopiak ematea.
6. Elaborar informes trimestrales con relación nominal de las personas atendidas mediante proyectos educativos personalizados, actualizando las altas y las bajas, para coordinar con los servicios sociales municipales las actuaciones conjuntas a desarrollar. Con carácter trimestral La coordinadora del programa enviará al Negociado de Protección de Personas adultas el informe con la relación nominal y los proyectos educativos personalizados que se hayan iniciado o cerrado durante el trimestre.
7. Desarrollar campañas publicitarias y de comunicación para la difusión de los Programas de Desventaja Social, a fin de garantizar una buena implementación de éstos y otros servicios, reflejando de forma explícita en cualquier divulgación de estos Programas, la financiación recibida del Área de Acción Social. La entidad deberá hacer pública la financiación municipal incluyendo el logotipo del Ayuntamiento en los materiales impresos que genere (carteles, folletos, hojas informativas...), en las placas conmemorativas, en los medios electrónicos o audiovisuales o en los anuncios que pueda publicar en los medios de comunicación escrita. Para ello, el Área de Acción Social facilitará a la entidad el nuevo logotipo municipal.
8. Garantizar la coordinación de los Programas de Desventaja Social con los diferentes programas, actividades o servicios que actualmente la Asociación de Desarrollo Comunitario GAZTELEKU está desarrollando en el Distrito VII de Bilbao y mantener, así mismo, coordinaciones fluidas y estables con los diferentes recursos socioeducativos de la zona.
9. Garantizar la coordinación con los Servicios Sociales de Base de Rekalde e Irala, a través de las coordinadoras de dichas unidades y con el Negociado de Protección de Personas Adultas del Área de Acción Social.
10. Elaborar y presentar en el Negociado de Protección de Personas Adultas memoria anual cuantitativa de la actividad desarrollada y evaluación de los Programas de Desventaja Social, objeto del presente Convenio.
11. Proporcionar al Área de Acción Social en la forma y momentos que ésta estime conveniente, cuantas informaciones precise respecto al desarrollo de los Programas de Desventaja Social.
12. Proporcionar al Área de Acción Social, en la forma y momentos que ésta estime conveniente, copia de las nóminas del personal destinado a la ejecución de los programas objeto del presente Convenio.

13. Gizarte Ekintza Sailak justifikazio ekonomikoko beste betebeharrak izango balitu beste instituzio batzuekin, sinatzen duen Elkartek konpromisoa hartzen du behar den guztian kolaboratzeko, obligazio horiek bete ahal izateko.
13. En el caso de que el Área de Acción Social tenga obligaciones de justificación económica frente a otras instituciones, la Asociación suscribiente, se compromete a colaborar en todo lo necesario para dar cumplimiento a dichas obligaciones.

#### **ZAZPIGARRENA.- ELKARTEAREN KONPROMISOAK**

1. Hitzarmen honen xede den programa kudeatzea, hitzarmenean azaldutako printzipio, helburu eta metodologiak arabera.
2. Jarduera honi buruzko Memoria-Txostena (urterokoa) aurkeztea, modu deskriptibo eta analitikoan; agiri hori behaketa zuzenean eta egindako esku-hartzean egongo da oinarrituta.
3. Taldearen lanaldia eta lan-egutegia antolatzerakoan, lan arloko arau orokorrek eta, zehazki, hitzarmen kolektiboak diotena betetzea.
4. Gizarte Segurantzako gastuak eta Hitzarmen honen betearazpenerako zerbitzuak ematen dituzten langileetatik eratorritako beste gastu batzuk Elkarte sinatzailearen kontura joango dira soilik eta modu eksklusiboan, eta, beraz, inoiz ezin izango dira hartu Bilboko Udaleko langiletzat, ez eta Bilboko Udalaren menpekotzat ere.
5. Pertsona bat izendatzea taldean, koordinazio lanak egin ditzan.
6. Hitzarmenaren indarraldia amaitu eta, gehienez ere, sei hilabeteko epean (**2020ko uztailaren 1a baino lehenago**), Diru-laguntzei buruzko Arautegiko 74. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerakoetan (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onartu zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua) ezarritako eran, programan egindako gastuen justifikazioa aurkeztu behar da eta honek nahitaez, dokumentazio hau eduki behar du:

- a) Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak bete behar direla justifikatzeko **Urteko Memoria**. Aipatu behar da ze ekintzak egin dira eta hauen emaitzak. Memoriak datuak jasotzeko eta kudeatzeko sistema jakin bat eduki behar du, datuak sexuaren, adin-taldearen eta jatorrizko herrialdearen arabera jaso eta kudeatu ahal izateko. Beste alde batetik, hizkuntzaren eta irudiaren erabilera ez-

#### **SÉPTIMA.- COMPROMISOS DE LA ASOCIACIÓN**

1. Gestionar el programa objeto de este convenio en base a los principios, objetivos y metodología explicada en este convenio.
2. Presentar un Informe-Memoria (anual) de esta actividad descriptivo y analítico basado en la observación directa y en la intervención realizada.
3. Organizar la jornada de trabajo y el calendario laboral de su equipo cumpliendo a estos efectos, lo establecido en las normas laborales de carácter general, y en concreto, el convenio colectivo.
4. Los gastos de Seguridad Social y otros que se deriven del personal que preste sus servicios para la realización del objeto de este Convenio, serán de cuenta única y exclusivamente de la Asociación suscribiente, lo cual indica que nunca podrán considerarse como personal adscrito al Ayuntamiento de Bilbao, ni bajo su dependencia.
5. Designar la persona del equipo que realizará las tareas de coordinación.
6. Dentro del plazo máximo de seis meses desde la finalización del año de vigencia del Convenio (**antes del 1 de julio de 2020**) de conformidad a lo dispuesto en el artículo 74 y demás concordantes del Reglamento de Subvenciones (Real Decreto 887/2006, de 21 de julio por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones), deberá presentar la cuenta justificativa del gasto realizado, que contendrá la siguiente documentación:

- a. **Una Memoria Anual** justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos. La memoria deberá contener un sistema de recogida y gestión de datos desagregados por sexo, franjas de edad y país de origen. Asimismo deberá tener en cuenta la utilización no sexista del lenguaje y de la imagen en la documentación aportada. **Dicha memoria deberá presentarse antes del 1 de febrero de 2020.**

sexista kontuan hartuko da dokumentazioan. **Memoria hau 2020ko otsailaren 1a baino lehen aurkeztu behar da.**

- b) **Diru-sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa:** Diruz lagundutako jardueretan egindako gastuen egoera-orri adierazgarria, multzoka, eta, hala bada, hasieran izan duten aurrekontua (hitzarmeneko 2. ERANSKINEAN jasota daude) eta egon diren desbideratzeak.
- c) **Auditoreak prestatutako txostena** aurkeztu behar du erakundeak. Horri buruz, zehaztapen hauek:
- 1) Auditoreetako bat Kontabilitateko eta Kontu Auditoretzako Institutuaren menpe dagoen Kontu Ikuskarrien Erregistro Ofizialean jardunekoa dela agertu beharko da.
  - 2) Auditoreak justifikazio-kontua berrikusi behar du, oro har, Estatuko sektore publikoaren eremuan kontuen auditoreek diru-laguntzen ikuskapenean nola jardun behar duten arautzen duen maiatzaren 17ko EHA 1434/2007 Aginduan (EAOn argitaratu zen 2007ko maiatzaren 25ean, 125. zenbakia) ezarritako zenbatekora arte.
  - 3) Auditorearen izendapena: Erakunde onuradunak urteko kontuen auditoretza egin behar badu, auditore berak berrikusi dezake diru-laguntzaren justifikazio-kontua. Erakunde onuradunak urteko kontuen auditoretza egin behar EZ badu, izendapena erakundeak egingo du.
  - 4) Auditoretzak eragiten duen gastua diruz lagundu daitekeen gastutzat har daiteke, betiere gastu hori Udalaren diru-laguntzaren auditoretza egiteko bada.
  - 5) Elkarrekin auditorearen esku jarri behar ditu Diru-laguntzei buruzko
- b. **Balance económico de ingresos y gastos** que, contendrá un estado representativo de los gastos incurridos en la realización de las actividades subvencionadas, debidamente agrupados, y, en su caso, las cantidades inicialmente presupuestadas (que figuran en el ANEXO 2 al presente convenio), y las desviaciones acaecidas.
- c. **Informe elaborado por la entidad auditora.** Al respecto:
- 1) La entidad auditora ha de estar inscrita como ejerciente en el Registro Oficial de Auditores de Cuentas dependiente del Instituto de Contabilidad y Auditoría de Cuentas.
  - 2) La entidad auditora ha de realizar la revisión de la cuenta justificativa con el alcance establecido, con carácter general, en la Orden EHA/1434/2007, de 17 de mayo (publicada en el B.O.E. nº 125 de 25 de mayo de 2007), por la que aprueba la Norma de actuación de los auditores de cuentas en la realización de los trabajos de revisión de cuentas justificativas de subvenciones, en el ámbito del sector público estatal.
  - 3) Designación de la entidad auditora: En el supuesto de que la entidad beneficiaria esté obligada por Ley a auditar cuentas anuales, se permite que esa misma entidad auditora revise la cuenta justificativa de la subvención. En el supuesto de que la entidad beneficiaria NO esté obligada a auditar sus cuentas anuales, la designación la realizará la entidad.
  - 4) El gasto derivado de la entidad auditora, podrá considerarse como gasto subvencionable, siempre y cuando el mismo se circunscriba únicamente a la entidad auditora de la subvención municipal.
  - 5) La entidad ha de poner a disposición de la entidad auditora los libros, regis-

Legearen 14.1 f) artikuluan adierazitako liburuak, erregistroak eta agiriak.

- 6) Elkarreak, goian adierazitako agiriak gorde behar ditu, Lege horretan aurreikusitako egiaztatze- eta kontrol-jarduerak egiteko.

Programa gauzatzeko epearen barruan egindako gastuen jatorrizko ziurtagiriak mota biko gastuak bereiztu behar ditu horretarako:

**a.- Programarekin zuzenean lotutako kostuak:** oso-osorik justifikatu beharko dira, fakturen eta balio bereko gainerako ziurtagirien bidez. **Gastuak justifikatzeko agirietan**, datu hauek sartuko dira, nahitaez:

- Onuradunaren identifikazioa.
- Gastua helburu den programaren deskribapena, programa gauzatzearekin zuzenean lotuta egongo dena.

Era berean, justifikatzen den programari buruzkoak bakar-barrik izango dira justifikazio-agiriak.

Salbuespen moduan, jarduerak egiten dituztenak enpresak edo profesionalak ez direnean, emandako zerbitzuaren zenbatekoaren ordainagiriak aurkeztuz justifikatu daiteke dena delako zerbitzua; horrekin batera, hartzailearen identifikazio-agiria (NANA, IFZ edo pasaporte) eta, 200 eurotik gorako zenbatekoa denean, ordaindu beharrekoa hartzailearen bankuko kontuan sartu dela ziurtatzen duen agiria.

Langileen gastuak justifikatzeko nominak eta gizarte segurantzari egindako kotizazioak aurkeztuko dira.

**b.-** Aurrekontuko fitxan erakundeak adierazi dituen **zeharkako kostuak** (hitzarmen honetako 2. Eranskina), ez dira agirien bidez justifikatu beharko, horien justifikazioa beren-beregi eskatu ezean. Kostu horiek diruz lagundutako jardueraren erakunde edo pertsona onuradunari egotziko zaizkie, kontabilitateko printzipioen eta arauen arabera, arrazoizko zatian eta betiere, kostu ho-

tros y documentos que le sean exigibles en aplicación del art. 14.1, apartado f) de la Ley de Subvenciones.

- 6) La entidad ha de conservar los documentos arriba mencionados, al objeto de las actuaciones de comprobación y control previstas en la Ley.

La documentación original justificativa que acredite los gastos efectuados dentro del plazo previsto para la ejecución del programa, ha de distinguir, a estos efectos:

